


I RAKURKETA PLANA



2003-2004 ikasturtea
2004-2005 / 2005-2006 ikasturteetan gaurkotua



AURKIBIDEA

A. IRAKURKETA PLANA: SARRERA.....	3
B. IRAKASLEAREN PAPERA	4
C. LIBURUTEGIAREN ERABILERA.....	5
1. ARAUTEGIA	
2. MAILEGU ZERBITZUA	
3. ADIERAZLEAK ZIKLOKA	
D. ULERMENEZKO IRAKURKETAREN GARAPENA.....	10
1. IRAKURTZEKO OHITURA ETA GUSTUA LORTZEA	
2. ESTRATEGIAK	
3. IRAKURKETAREN HELBURU ZEHATZAK	
a) ARGIBIDE ZEHATZ BAT LORTZEKO.	
b) INSTRUKZIO BATZUK JARRAITZEKO	
c) ARGIBIDE OROKOR BAT LANTZEKO	
d) IKASTEKO	
e) BAKIOTZAK IDATZITAKOIA BERRIKUSTEKO	
f) ONGI PASATZEKO	
g) ENTZULEGO BATI ZUZENTZEKO TESTU BAT	
h) IRAKURKETA OZENA TREBATZEKO	
i) IRAKURRITAKOIA ULERTZEKO	
4. ONDORIOAK	
E. IRAKURKETA LANTZEKO EGOERAK - H.H. ZIKLOAN.....	15
F. IRAKURKETA LANTZEKO 1. ZIKLOAN - EKINTZAK.....	16
G. IRAKURKETA LANTZEKO 2. ZIKLOAN - EKINTZAK.....	18
H. IRAKURKETA LANTZEKO 3. ZIKLOAN - EKINTZAK.....	20
I. TESTU MOTAK	24
ERANSKINA:	25
🔗 IRAKURKETA KANPAINETARAKO MATERIALA. JARDUERAK	
🔗 FAMILIEI EMATEKO INFORMAZIOA. (Liburutegian eskuragarri).	
🔗 LIBURUTEGIA ERABILTZEKO ARAUTEGIA. (Liburutegian eskuragarri).	

A. IRAKURKETA PLANA: SARRERA

- ↳ Irakurleak haurzarotik trebatzen hasten direla kontuan harturik, administrazioaren ahaleginak haurren liburu eta liburutegiekiko kontaktu goiztiar eta iraunkorra sustatzea bilatu beharko luke, **hala eskola nola familiaren bitartez ere.**
- ↳ Azterlan batzuk frogatzen dutenez, ongi horniturik dagoen eta arduradun kualifikatuak dituen liburutegi batera joaten diren ikasleek, baldin liburutegiko zerbitzuak maiz erabiltzen badituzte, emaitza hobetoak lortzen dituzte eskolako arlo guztietan, bai irakurmenean eta baita idazmenean ere nabarmentzen direlarik.
- ↳ Honengatik guztiatik eta gogoeta hauek kontuan harturik, ikastetxeko irakurketa planaren oinarrietako bat liburutegiaren erabilera sustatzean datza, beti ere gure ikasleen irakurmenaren garapena eta informazioaren erabilera lortzera bideratzen den ezinbesteko baliabide moduan, gaur egun ditugun zailtasunak gorabehera, zeren eta zerbitzu honek funtzionatzen badu, irakasle batzuen ahalegin eta lehiari esker funtzionatzen baitu.
- ↳ Gure ustez, eskolako liburutegiak, ikastetxeko hezkuntza eta curriculum-proiektuan sartua, irakurketaren benetako sustapena ahalbidetzen du, ikasbide eta irakasbide eraginkor eta parte-hartzaileak erabiltzea errazten du, eta ikasleen arteko jatorrizko ezberdintasunak zuzentzen ahal ditu.
- ↳ Arrazoi hauengatik pentsatzen dugu administrazioak ikastetxeak giza-baliabidez eta baliabide materialez hornitzeko ahalegina egin beharko zuela, aipatutako eginkizun horiek guztiak erraztasunez burutu ahal izateko eta bilatzen diren helburuak erdiesteko.
- ↳ Kontuan hartu beharreko beste aspektu garrantzitsu bat, gai honetan familien esku-hartzea da.
- ↳ Ikerlan ugari frogatu dutenez, gurasoek zeregin garrantzitsua betetzen dute, hala irakurketaren ikaskuntzaren lehenengo faseetan nola irakurmenaren ondoko garapenean. Hau dela eta, irakurle asko irakurtzeko zailtasuna dagoen familietan sortzen dira, hau da, bai gozatzeko, abenturan murgiltzeko, edo baita jakin-mina asetzeko ere liburuen erabilera bultzatzen den tokietan hain zuzen.

B. IRAKASLEAREN PAPERA IRAKURKETAREN AURREAN

- ↪ Irakasleak ikasleen aurrean irakurlearen papera hartu behar du eredia bihurtuz.
- ↪ ere ikasleek irakurtzen dituzten liburuak berak ere irakurtzen ditu.
- ↪ Klasean beste testu motak (ipuinak, egunkariko berriak, eskutitzak...) irakurtzen ditu.
- ↪ Informazio iturri desberdinak (hiztegiak, entziklopediak, egile desberdinen liburuak..) kontsultatzen ditu.
- ↪ Testu bat irakurri ondoren, parte hartzen du, postura hartzen du, bere iritzia azaltzen du...
- ↪ Irakurketaren funtzio desberdinak (informazioa lortzeko, dibertitzeko, kontsultatzeko, azalpen bat prestatzeko...) egoerak sistematikoki planteatzen ditu.
- ↪ Irakurketa saio desberdinak antolatzen ditu: irakurketa indibiduala, taldeka, gelaka...
- ↪ Testu mota desberdinak erabiltzen ditu.
- ↪ Testu baten bertsio desberdinak erabiltzen ditu.
- ↪ Gelako liburutegia bultzatzen du, ahalik eta aberatsen izan dadin, mota guztietako generoak sartuz: narrazioak, poesia, antzerkia, komikiak, kontsulta liburuak, egunkariak, aldizkariak...
- ↪ Egunero ozenki irakurtzen die bere ikasleei.
- ↪ Irakurketa isila ere sustatzen du.
- ↪ Berak irakurritako liburuak komentatzen ditu.
- ↪ Ikasleek irakurritako liburuen aurkezpenak errazten ditu.
- ↪ Berak irakurritako liburuak gomendatzen ditu.

C. LIBURUTEGIAREN ERABILERA

1.- LIBURUTEGIKO ARAUTEGIA

- 1) Eskolako liburutegia zabalik dago eskolako ikasle eta irakasle guztientzat. Denon zerbitzura dago eskolako ordutegian.
- 2) Liburutegia erabili ahal izateko, atean ezarrita dagoen ordutegian asteko saio bat hartu behar da.
- 3) Liburutegian ikasleek beti irakasle batekin egon behar dute. Saio-bukaeran bai mobiliario baita liburuak ere, aurkitu diren bezala utzi behar dira. Honen arduraduna irakaslea izango da.
- 4) Liburutegian isilik egon behar da beste ikasleei traba egin gabe; modu honetan liburutegiak hobeki funtzionatuko du.
- 5) Liburuak apaletan uzterakoan dagokien bilduman utzi behar dira, hurrengo irakurleak erraz aurki ditzan. Horretarako ikasle bakoitzak, bere markaliburua erabiliko du.
- 6) Higienearen mesede, debekatuta dago liburutegian jatea edo edatea.

2.- MAILEGU ZERBITZUA

- 1) Ikasle bakoitzak liburu bat har dezake eta tutoreak maileguen kontrola eramanen du hurren txartela erabiliz eta mailegu liburuan idatziz.
- 2) Irakasleek liburu loteak har ditzakete gelan epe batez erabili ahal izateko. Liburuaren izenburuak eta irakaslearen izena Mailegu liburuan apuntatuko ditu. Denek aukera berdina izateko, gutxienez hiruhilero liburuak aldatzea gomendatzen da.
- 3) Hiztegiak, entziklopediak eta kontsulta liburuak har daitezke, gelan, epe laburrean, eta liburuan apuntatuko ditugu.
- 4) Irakurle batek maileguan hartutako liburua itzultzen ez badu, edota hondatuta bueltatuz gero, haren berdina eskuratu behar du edo haren balioa ordaindu.
- 5) Ekainean bai ikasle bai irakasleek guztiek, mailegua hartutako liburu guztiak liburutegira eraman behar dituzte.
- 6) ZAIN ITZAZU LIBURUAK,
EZ APURTU,
EZ MARGOTU,
EZ ZIKINDU,
LIBURUAK DENONAK DIRA!!!!



3-ADIERAZLEAK ZIKLOKA

1- ADIERAZLEAK. HAUR HEZKUNTZA

↪ Liburutegiko arauak ezagutu eta errespetatzea:

- Liburutegiko saioa noiz dugun jakin.
- Liburutegian hitz egitekotan baxu hitz egitea lortu.

↪ Liburutegiaren antolamendua ezagutzea:

- “Blitz” liburutegiko xagutxoak ezagutzea.
- Haur eta gazte literatura sailkatzeko kodea ezagutzea:
 - Gomets urdina - Haur Hezkuntza eta 1.zikloa.*
 - Gomets gorria - 2.zikloa.*
 - Gomets berdea - 3.zikloa.*
- Ikus entzutekoak (CD, DVD, Bideo zintak) daudela jakin.
- Kontsulta liburuak daudela jakin. Liburu baten bizkarra, azala eta kontrazala bereiztea.

↪ Haur Hezkuntzako txokoa eta har ditzaketen liburuak zeintzuk diren jakin.

↪ Haur hezkuntza 3.mailakoek markaliburua erabiltzen hasiko dira.

↪ Gelara eramateko lote liburua mailegu zerbitzuaren bitartez egiten dela, jakin.

2- ADIERAZLEAK. LEHEN ZIKLOA

🔄 Liburutegia eskolan non dagoen eta taldearen ordutegia jakitea.

🔄 Liburutegiko araudia ezagutzea:

- Liburutegiko ordutegia errespetatzea.
- Liburuak eta altzariak ongi ordenatuta utzi behar dira.
- Liburutegian isilik egon behar da.
- Marka liburua erabiltzea.
- Zikloari dagozkion liburuak erabiltzea, hau da, gomets urdinak dituztenak.
- Liburutegiko mailegu zerbitzua ezagutzea:
- Liburutegitik eraman nahi ditugun liburuak
- Mailegu liburuan apuntatu behar dira.
- Liburuak sailkatzeko kodea (S.H.U.) ezagutzea.

3- ADIERAZLEAK. BIGARREN ZIKLOA

↪ Liburutegiko arauak erabiltzea eta errespetatzea:

- Liburutegiko arauak ezagutu eta errespetatu.

↪ Liburutegiaren antolamendua ezagutzea.

- Liburutegiko ordutegia jakitea.
- Marka- liburuak zuzen erabili.
- Liburutegiko txartelaren erabilera zuzena ikasi eta egoki erabili.
- Ikus-entzunezko materiala (CD, DVD, Bideoa...) non dagoen jakitea.
- Kontsulta liburuak daudela jakitea.

↪ Eskolako liburutegian liburuak nola dauden antolatuta ezagutzea:

- Haur eta gazte literatura sailkatzeko kodea ezagutzea: (S. H. U.)
Gomets urdina – Haur Hezkuntza eta 1. zikloa.
Gomets gorria – 2. zikloa.
Gomets berdea – 3. zikloa.

↪ Liburutegiko mailegu zerbitzua ezagutzea.

4-ADIERAZLEAK.HIRUGARREN ZIKLOA

🌀 Liburutegiko arauak ezagutu eta errespetatu:

- Liburutegiko ordutegia errespetatzea.
- Liburuak eta aulkiak ongi utzi behar direla jakin.
- Liburutegian isilik egon behar dela jakin.

🌀 Liburutegiko antolamendua ezagutu:

- Liburutegiko kodea ezberdintzea.
- 3. zikloari dagozkion liburuak ezagutu, kolore berdea dutela jakin eta kokatuak non dauden ezberdindu.
- Kolore gorria edo berdea duten liburuak norentzat diren jakitea.
- Kontsulta liburuaren kokapena jakin eta erabiltzen hasi.
- Beste ikus-entzunezko materiala non dagoen: CD, Bideoak,... ezagutzea.
- Liburutegiko txartela zuzen erabili.
- Liburua irakurri eta gero dagokion fitxa betetzea.

D. ULERMENEZKO IRAKURKETAREN GARAPENA

1. IRAKURTZEKO OHITURA ETA GUSTUA LORTZEA

2. ESTRATEGIAK

3. IRAKURKETAREN HELBURU ZEHATZAK

- a) ARGIBIDE ZEHATZ BAT LORTZEKO.
- b) INSTRUKZIO BATZUK JARRAITZEKO
- c) ARGIBIDE OROKOR BAT LANTZEKO
- d) IKASTEKO
- e) BAKIOTZAK IDATZITAKOA BERRIKUSTEKO
- f) ONGI PASATZEKO
- g) ENTZULEGO BATI ZUZENTZEKO TESTU BAT
- h) IRAKURKETA OZENA TREBATZEKO
- i) IRAKURRITAKOA ULERTZEKO

4. ONDORIOAK

1. IRAKURTZEKO OHITURA ETA GUSTUA HARTZEA

- ↪ Irakurketa gustukoa izatea da helburu.
- ↪ Irakurketaren oinarriko gaitasunak lortzeko ezinbestekoa da irakurketa sistematikoki lantzea.
- ↪ Komenigarria da irakurketa modu desberdinak bereiztea:
Arloetako lanarekin lotura duena eta disfrutatzekoa.
- ↪ Motibazioa funtsezkoa da:
Irakasleok kutsatu behar dugu irakurketarako zaletasunarekin.
Ikasleen arteko motibazioa ere bultzatuko da.
- ↪ Irakurketa ez da lehiaketa bat bezala hartu behar inolaz ere ez.
- ↪ Irakaslearen lana da testurik hoberenak edo egokienak aukeratzea landu nahi dugunerako, ongi ulertzeko eta denon artean konpartitzeko.

2. ESTRATEGIAK.

- ↪ Tutorearekin edo beste arloetako irakaslearekin liburutegira joatea astean behin gutxienez. Horrela hurrek askatasun osoz aukera ditzakete euren gustuko liburuak, komikiak, aldizkariak, ezagutza liburuak, eta abar.
- ↪ Liburuak maileguan hartzeko aukera eman. Maileguaren bidez liburuak etxean ere erabil daitezke, eta horrela liburu gutxi duten etxeetan hauen erabilera errazten da.
- ↪ Irakurlearen txartela, txartela izatea. Dokumentu pertsonalizatu hau ikasle bakoitzak izateak errazten du liburu mailegua.
- ↪ Irakurketa pasaporte bat betetzea. Irakasleak bertan irakurritako liburuaren aspektu aipagarrienak apuntatzen ditu. Honen asmoa haur bakoitzak irakurri duena etorkizunean gogoratzea da.
- ↪ Irakasleak ozenki irakurtzea testu mota desberdinak: olerkiak, ipuinak, prentsako berria...
- ↪ Irakurritako liburuaren aurkezpenak egitea. Haur bakoitzak dagokion astean irakurri duen azken liburua azaltzen du besteen aurrean. Irakasleek ere jarduera honetan parte hartu beharko dute eta irakurritako libururen bat kontatuko dute.
- ↪ Ahozotasuna landuko da haurren parte- hartze aktiboaren bidez.
- ↪ Ikasleen artean irakurketa bultzatzeko ekintzak burutuko dira:

- **“Biok elkarri kontu kontari”**

(Adin desberdineko haurrak elkartu eta, binaka, elkarri ipuina kontatzea).

3. IRAKURKETAREN HELBURU ZEHATZAK

Helburu ezberdin guztiak landu behar dira eskolan, denak beharrezkoak baitira:

a) Argibide zehatz bat lortzeko irakurketa.

Hau da, interesatzen zaigun datu zehatz bat bilatzeko. Oso hautakorra da irakurketa hau. Honek errealitateko giro batean kokatzeko eta irakurketa aspektu batzuk lantzeko, arintasuna adibidez, aukera ona eskaintzen digu.

b) Instrukzioak segitzeko irakurketa:

Honetarako ezinbestekoa da irakurritako testua ulertzea. Ulermena konpartitu behar da taldeko kideekin gainera.

Kasu hauetan irakurketa lana erabat esanguratsua eta erabilgarria da. Horretaz gain, instrukzioak, errezetak, erabiltzeko arauak eta abarrekoak irakurtzea oso bide egokia da bakoitzeko ulermena ziurtatzeko.

c) Argibide orokor bat lortzeko irakurketa.

Hemen aski dugu ideiarik orokorrenekin, irakurlearen beharraren arabera (gehiago ala gutxiago sakondu).

Oso erabilgarria da helburu zehatzak ditugunean, adibidez lan monografiko bat egiterakoan ikertu behar ditugun testuak.

Irakurketa modu hau bultzatzea oso inportantea da "irakurketa kritiko" garatzeko, irakurleak badakielako zertan ohartu behar eta zer jakintzat eman.

Guzti horregatik, eskolan ohi baino gehiago lantzea komenigarria da.

d) Ikasteko irakurketa

Estudiatzeko irakurketa orokor bat egiten da eta gero dituen ideia inportanteetan sakontzen da normalean. Honek norik bere buruari galderak egitea, harremanak egitea, gauza berriak berrikustea, laburpenak egitea, azpimarratzea, zalantzak apuntatzea, eta abar eskatzen du.

Oso irakurketa emankorra eta kontrolatua da, irakurleak ikasi behar duenaren jakinaren gainean egon behar duelako.

e) Bakoitzak idatzitakoa berrikusteko irakurketa.

Irakurketa kritiko eta erabilgarria, idazten laguntzen diguna.

Gure idazketak ikertzea nahitaezkoa da, irakurketa eta idazketaren hezkuntzan hurrei testu konposaketaren moduak irakasten dielako.

f) Ongi igarotzeko irakurketa.

Gustua oso pertsonala da, horregatik inportanteena irakurketak emandako emozio esperientzia da.

Bereiztu behar da kasu honetan noiz irakurtzen dugu irakurtzeko asmoz eta noiz lan zehatz batzuk egiteko (kasu honetan zentzua dauka irakurle guztiek irakurketa zati berbera irakurtzeak)

g) Irakurlego bati zuzendutako irakurketa:

Honen helburua irakurketa entzuten ari direnok esaten zaiena ulertzea da.

Irakurketa honetan normalean intonazio, geldiuneak, ez irakurritako adibideak eta abarrekoak erabiltzen dira ulergarri eta entretenituagoa izan dadin.

Ozenki irakurtzeak testua ulertzea eskatzen du eraginkorra izateko.

Irakurle onak haztea honako irakurketa lantzea beharrezkoa da eskolan: prentsa landuz, irakurketak birpasatuz, ikerketa txikiak egiteko kontsultatuz, olerki irakurketa saioak antolatuz lan bat egin instrukzio batzuei segituz...

h) Irakurketa ozena trebatzekoa

Honen helburua ikasleek garbi, arin eta zuzen irakurtzea da. Horretarako puntuazio eta intonazio arauak kontutan hartu behar dira.

Ikasleak testua ulertzea nahi badugu, bakarka irakurtzeko aukera izan beharko du. Ezin dugu umeen arreta esanahiaren eraiketan eta ongi ahoskatzean berdina izatea espero. Beraz oso garrantzi handikoa da ozenki irakurri aurretik testua konprenitua izatea.

i) Irakurri dena gero adierazteko irakurketa

Kontutan hartu behar dugu kasu honetan aurreko helburuak ditugula irakurtzeko, hau da, antolatu behar dugu irakurketa eta sailkatu guri interesatzen zaiguna.

Irakurketak modu hauek eta testu ezberdinak izan behar du kontutan, xede ezberdinekin irakurtzen irakatsi behar baitzaie ikasleei.

- Lagundu irakurleari aurreko ezagutza bultzatzen ahal duten aspektuak ikusten. Hau da logika bat eman, antolaketa proposatu lehen, artean eta gerorako izaten ahal dituzten oharpenak.
- Umeak gaiari buruzko eztabaidan edo azalpenean sartu hango gairik garrantzitsuenak indartuz testua irakurri aurretik.

Halako pausoak jarraituz umeak protagonistatzat hartzen duten beraien buruak. Baita haurrek beren iritziak beharrezkoak direla ikasten dute ere.

Batzutan izenburuak ulertzea zaila egiten zaie eta ona da haien gainean hausnartzea.

Hezkuntza ardura hartzen duten irakurleek ez dute bakarrik erantzuten galdetzen zaiena baizik eta beren buruei galderak egiten dizkiete ere.

Irakasleok galdetzean kontutan hartu behar ditugu gairik inportanteenak.

4. ONDORIOAK

Batez ere, indartu behar da irakurri aurretik egin ahal dena haurren ulermena hobetzeko.

Irakurtzeko beharra bultzatzea baino lehen trebatu behar zaio irakurketa segurtasunez, konfiantzaz eta jakin-minez hartzeko.

Irakurle eraginkor bihurtu, hau da, zergatik irakurtzen duen dakiena eta zertarako ere.

E. HAUR HEZKUNTZA - IRAKURKETA LANTZEKO EGOERAK

	GELAKO ANTOLAKETA (EGUNEROKO ERRUTINAK)	ESPAZIO ZEHATZAK (TXOKOAK)
ENUMERATIBOA	<p>Izendapena: karpetak, materiala, lanak...</p> <p>Zerrendak: ordutegiak, jantokira dozenak, autobusez doazenak, eskolara etorri ez direnak, erlijiora doazenak, HJA-ra dozenak...</p> <p>Agenda: helbideak, etxeko telefonoak...</p> <p>Taulak: arduraduna, laguntzailea, eguraldia...</p>	<p>Izendapena: txokoak, horma-irudiak...</p> <p>Zerrendak: liburuak, idazleak, gaiari buruzkoak</p> <p>Liburuxkak: gaiarekin lotutakoak</p> <p>Testu komertzialak: prezioak, eskaintzak, katalogoak...</p>
ESPOSITIBOA	<p>Azalpen testuak: egunkaria, etxetik ekarritako informazioa, taldekako testu monografikoak...</p>	<p>Definizioak: gaiari loturiko hiztegia</p> <p>Oharrak: irteerak</p> <p>Dossierrak: gaiari buruzkoak</p> <p>Ibilbideak, biografiak, eskemak...</p>
LITERARIOA	<p>Literatura herrikoa: Esaera zaharrak, aho korapiloak, asmakizunak, festa herrikoietako testuak...</p> <p>Olerki eta abestiak: buruz ikasteko, errezitatzeko...</p> <p>Ipuinak: azalpenak, irakurketa, idazketa...</p>	<p>Ipuinak, narrazioak, olerkiak, asmakizunak, antzerkia, abestiak, komikiak...</p>

NOIZBEHINKA LANTZEN DITUGUN TESTU MOTAK

INFORMATIBOA	Oharrak, deialdi txartelak, eskutitzak, iragarkiak irakurri.	Bai taldeka bai bakarka idatzi, prestatu.
PRESKRIPTIBOA	Ardurak, jarraibideak,...	Jokoen arauak

F- IRAKURKETA LANTZEKO EKINTZAK – 1. ZIKLOA

IRAKURKETAREN INGURUKOAK:

- ↪ Gelan egunero tartetxo bat irakurri.
- ↪ Astero saio batean eskolako liburutegira irakurtzera joatea.
- ↪ Gelatik etxera eramaten dituzten liburuak fitxa batean apuntatzen dituzte.
- ↪ Haurrak etxetik ekarritako liburuak (hiztegiak, ipuinak, foiletoak...) irakurri eta komentatzen dira.
- ↪ Gelan edo etxean irakurritakoaren kontakizuna eta beraien iritzia azaltzen dute.
- ↪ Irakasleok ia-ia egunero mota desberdinetako testuak ozenki irakurri (ipuinak, asmakizunak, abestiak, kartak, jokoen arauak...)
- ↪ Adin honetan, edozein testuetan ulermena lantzerakoan hiztegia asko lantzen da, hasieran kontestuari begira edota hiztegian begiratuz.
- ↪ Irakurri baino lehen, testu baten inguruan hipotesiak, predikzioak egin.
- ↪ Testu bat irakurri ondoren galdera desberdinak egin.
- ↪ Ikasleek irakurketa isila egiten dute testu desberdinak aukeratuz bakoitzaren interesaren arabera.
- ↪ Testu berdina izanda txandaka irakurri.

IDAZKETAREN INGURUKOAK

- ↪ Ipuin bat edo beste testu bat irakurri ondoren desordenatuta eman ordenean jartzeko.
- ↪ Testua eta marrazkiak elkartu: marrazki bakoitzari dagokion testua idatziz edo alderantziz.
- ↪ Testu bat ilustratu, testu bat irakurri ondoren ilustrazioak jarri.
- ↪ Marrazkiak emanda testua jarri.
- ↪ Hasierarik gabeko testu bat emanda osatu.
- ↪ Testu bat eman gertaerarik gabe, gertaera asma dezaten, hasiera eta bukaera kontutan har ditzaten.
- ↪ Testu batean bukaera desberdinak asmatu.
- ↪ Testu bat irakurri ondoren galderak erantzun.
- ↪ Testu inguruko erantzunen artean egokienak aukeratu.
- ↪ Testu bati bokal guztiak falta zaizkio, ikasleek jarri behar dituzte testua ulergarria izan dadila.
- ↪ Testu bat kontsonanterik gabe eman ikasleek osa dezaten ulergarria izateko.
- ↪ Testu motz baten (esaldia) hitzak desordenatuta eman ordenatu dezaten (1. mailan bereziki).
- ↪ Marrazki bat eman 3 edo 4 esaldiekin, marrazkiari dagokion esaldia aukeratzeko.
- ↪ Testu bat hutsuneekin eman eta ondoan agertzen diren hitzak txertatu, testua ulergarria izateko.
- ↪ Bi testu berdinak eman hitz batzuk salbu, ikasleek hitz hauek azpimarratzeko.
- ↪ Testu batean esaldiren bat txertatu ikasleek soberan dauden esaldi hauek aurki ditzaten.
- ↪ Testu bat irakurri ondoren testuarekin erlazionatuak dauden esaldiak idatzi, batzuk egokiak eta besteak absurdoak izanik.
- ↪ Testu batean 3- 4 hitz esanguratsuak kendu eta ikasleei osa dezatela eskatu.

G- IRAKURKETA LANTZEKO EKINTZAK: 2. ZIKLOA

Dokumentu honetan gure oraingo praktika agertzen da baina guk erabiltzen ditugun estrategiak eta egiten ditugun ekintzak azaldu baino lehen aipatu nahi dugu oso garbi izan behar dugula zein desberdintasun dagoen irakurketaren zaletasuna bultzatze eta ulermena lantzearen artean. Bi helburu hauek sar daitezke saio honetan.

1.- Saioaren hasieran ikasle guztiak 2 liburu hartzen dute. Isiltasun osoan egoten dira (20-30 minutu).

Ondoren:

- Batzutan nahi duenak kontatzen du irakurri duena.
- Irakasleak liburu bat irakurtzen hasten zaie eta gero jarraipena jakin nahi duenak etxera eramateko txandan ematen dute izena.
- Motibatuta badaude beraiek irakurtzen ari direnekin ?????

2.- Irakasleak irakurtzen die liburu bat irakurketa saiotik gain.

Une interesgarrian geratzen da.

Hipotesiak egiten dituzte.

Liburu osoa irakurri ondoren ikasleek txandan izena eman eta eramaten dute etxera berriro irakurtzeko.

Irakurketa isiltasunean eta bakarka, denbora gutxi, baina gero liburu hori edo beste bat eramaten dute etxera jarraitzeko.

3.- Liburutegian ikasleek liburuak aukeratzen dituzte, fitxa bete eta txartelean ipini.

Aukeratzen dutenaren arabera hasten dira irakurtzen eta gero etxera eramaten dute bukatzeko.

Hurrengo astean ekartzen joaten dira eta kromo gutun-azal ematen zaie.

4.- Gaztelaniaz irakurketa.

Aukeratutako liburua irakurtzen dute.

Ondoren aukeratzen dute liburuaren zati bat eta idatzi eta besteen aurrean azalpena prestatzen dute liburuaren informazio guztiarekin osatuz.

Denbora gehiago egoten dira lan hau egiten irakurtzen baino.

ULERMENA BESTE GAIETAN

Matematikan:

Ariketen aginduak bakarka irakurri eta ondokoari kontatu edo denon aurrean azaldu.

Ingurunean:

Talde handian eta irakaslearen laguntzaz testua irakurtzen da eta bere ulermenerako hiztegia ere erabiliz.

IRAKURKETAREN ULERMENA

IRAKURRI BAINO LEHEN

Informazioa ematea:

Irakurri baino lehen ematen dugun informazioa bi eraz egiten dugu:

- a) Batzutan irakaslea da hurrengo testuari buruzko azalpenak ematen dituena.
- b) Beste batzutan izenburua emanda galdetzen zaie ikasleei zeri buruz joango den testua.

Hipotesiak ateratzea:

Irakurmenaren aurretik, hipotesiak sortaraztean gure ikasleengan normala da gure eguneroko lanean, baina pentsatzen dugu askotan egiten dela narratiboko testuetan eta gutxitan edo inoiz ez espositiboetan. Akats hau betetzea derrigorrezkoa ikusten dugu hemendik aurrera. Garrantzitsua ere jotzen dugu hipotesi horiek testuaren egitura (izenburu eta azpi-izenburuak, marrazkiak, ...) ere aztertuz lantzea.

Galderak eragitea:

Beste estrategia bat, irakurri baino lehen, izango litzateke ikasleen galderak eragitea testuari buruz. Orokorrean oso gutxitan egiten da praktikan estrategia hau eta interesgarria eta osagarria aurrekoarekin ikusten dugu.

Galderak sortarazteko kontutan hartu behar dugula testuaren barneko antolaketa aipatu nahi dugu.

LAN TALDEAN ATERATAKO BESTE EKINTZAK

1.- Gelan liburutegi bat dago. Egunero denbora bat ematen da liburuak maileguan eramateko edo itzultzeko.

- Batzuetan eskatzen zaie liburu bati buruzko iritzia edo gaia.
- Bestetan gehien gustatu zaiena kontatzen dute.
- Irakasleak liburu bat aurkezten du.

2.- Liburu bat guztien artean irakurtzen da. Liburua batetik bestera pasatzen da eta bakoitzak pasarte bat edo irakurtzen du.

Ondoren, bakoitzak irakurri duen pasarteari dagokion marrazkia egiten du.

Marrazki guztiak ordenatu eta gordetzen dira. Beste egun batean, marrazkiak berriz banan bana ikusiz, ipuina edo istorioa kontatzen dute.

3.- Pasarte bat azertu:

- Hitz baten sinonimoak atera.
- Erlatiboetako esaldiak errepikatu.
- Irakurlearen esapide baten ordean, esanahi bereko beste esapide batzuk bilatu.
- Hitz baten antonimoak.
- Esaldi baten esanahia erabat aldatu.
- Intonazioa aldatu.

4.- Bruño argitaletxearen materialak erabili.

H- IRAKURKETA LANTZEKO EKINTZAK: 3. ZIKLOAN

Irakurketa saioa aurrerago deskribatzen den eskemari jarraituz egiten da:

Saio honetarako irakasleak liburu bat aukeratzen du ikasleen aurrean kapitulua irakurtzeko. Saioaren hasieran dagokigun kapitulua irakurtzen da. Ondoren komentatzen da irakurritakoa eta planteatzen zaie ikasleei adieraztea beraien ustez nola jarraituko duen hurrengo kapitulua, beraien hipotesiak esanez.

Aurrekoa bukatu eta gero ikasle bati ematen zaio aukera berak irakurri duen libururen baten aurkezpena egiteko, hau da, zein liburu den, idazlea, ilustratzailea, argitaletxea... eta kontatzen digu zertaz doa liburura eta zergatik gustatu zaion.

Aipatutako bi ekintza hauek gelan bertan egiten dira, ondoren ikasle guztiek irakurtzen ari diren liburua hartu, eta liburutegira abiatzen gara, bertan 5 edo 10 minutu ematen zaizkie, bukatutako liburua bere tokian uzteko eta beste liburu bat aukeratzeko. Hau egiten dutenean isiltasuna eta kontzentrazioa eskatzen zaie bakoitzak bere liburua irakurri ahal izateko.

Horretaz aparte irakurketa bultzatzeko sistematikoki egiten diren beste ekintzak:

- ☞ Ikasleen urtebetetzerako eta opari gisa, ikasle bakoitzak olerki bat bilatu eta aukeratzen du oparitzeko, olerki guztiak bilduta, liburuxka bat osatzen dugu eta denon partetik eskaintzen diogu urteak betetzen dituenari. Ekintza honi esker haurrak hurbiltzen dira poesiaren mundura, haur poesia idazten duten idazleak ezagutzeko aukera dute...
- ☞ Astero ere egunkariko berriren bat selekzionatzen da beraien aurrean irakurtzeko eta komentatzeko, horrekin lortzen da beraiek komunikabide honekiko kuriositatea piztea, berehala hasten dira beraiek ere ekartzen etxetik egunkaritik hartutako berriren bat.
- ☞ Ingurune arloan lan egiteko moduak ere ulermenezko irakurketa potentziatzen du: Normalean gaia proposatu eta gero, ikasleek gai hori garatzeko behar den informazioaren bila eskolako liburutegira jotzen dute. Bertan irakaslearen laguntzaz dauden liburuak aztertu eta egokiak hartzen dituzte.

Dokumentazio hau osatu daiteke ere etxean edo herriko liburutegian aurkitutakoarekin.

Gelan eta talde handian zehazten dira gaiaren atalak eta gero ikasleak taldeka hasten dira lanean. Talde bakoitzaren ardura gaiaren atal bat garatea da, horretarako bilatu, aztertu, ulertu eta berridatzi behar du aurkitutako informazioa, ondoren gai izan behar da atal hau bere ikaskideei azaltzeko.

- ☞ Ikasleei eskatzen zaizkien idazlanak gelakideen aurrean ozenki irakurtzea.

Ekintza honi hurrengo aspektu positiboak aurkitzen dizkiogu:

- 1) Ikaslearentzat funtzio bat dauka testua idazteak, ez da bakarrik irakasleak zuzendu eta akatsak seinalatuta berriro jasotzeko, baizik eta testu honek audientzia bat izanen du.
- 2) Ekintza honek irakurleari ere eskatzen dio prestakuntza bat, aldez aurretik idatzitakoa irakurri beharko du, intonazio egokia eta zentzua behar den bezala egiteko. (Normalean ere, guztien aurrean irakurri baino lehen irakaslearekin zuzenketa lana egina dago. Helburua besteen partetik errefortzu positibo jasotzea baita, lana ondo egina dueneko inpresioarekin gelditzeko.)
- 3) Entzuleentzat ere baliagarria da, beraiengandik hurbil dauden beste idazleen adierazpenak, lokailuak, esateko erak,... entzuteko aukera daukate eta.

Idazleekin prestatutako topaketak

Aldez aurretik etorriko den idazlearen obra bilatzen da eskolako eta herriko liburutegietan, aurkitutako liburuak gelara eramaten dira eta guztion artean bat aukeratzen da kapituluka irakurtzeko, besteak maileguan har ditzakete beren kabuz irakurtzeko.

Irakurritako liburuak gelan komentatzen dira, gomendatzen dira, idatzitako erresenak ere egin daitezke, idazleari buruzko informazioa jaso eta jakitera ematen da, txikientzako liburuak baditu irakurri, prestatu eta txikien geletara irakurtzera joaten dira, hau da, ikasle guztiek parte hartzen dute lan honetan.

Bildutako materialarekin erakusketa bat muntatzen da idazlea etorri baino lehen.

Irakurketa topaketak

Ekintza honetan ikasle nagusiak aldez aurretik irakurritako eta prestatutako ipuinak irakurtzen dizkiete eskolako ikasle txikiei liburutegian elkartzen direnean.

3. zikloko irakasle taldeak irakurketaren inguruan egindako zenbait kontsiderazio ontzat hartzen ditu:

1. Irakurlearen eredua ematea ikasleei bai etxean, gurasoen partetik, baita eskolan ere, irakasleen aldetik.

Etixerako: Aholkatu gurasoei hasiera, hasieratik, haurra txikia denetik, ipuinak kontatzea eta irakurtzea, egunero denbora tarte bat dedikatzea ekintza honetarako, irakurketarekiko zaletasuna pizteaz gain ama edota aitarekiko lotura afektiboa lortzen baita. Adina aurrera doan heinean eta haurrak irakurketaren prozesuan autonomoagoa bihurtzen denean gurasoekin egiten den irakurketa hau tartekatu daiteke, paragrafo bat haurrak eta bestea aita-amak eginez. Modu berean oso interesgarria ikusten dugu eta horregatik aholkatuko zaie ere, liburutegi publikora edota liburu-dendetara joatea seme-alabekin liburu munduan harremanetan sartzeko. Ildo honetatik administrazioaren aurrean ere, liburutegi gehiago eta dauden liburutegien ordutegiaren zabaltzeko eskaera egitea, beharrezkoa ikusten dugu.

Eskolan: Oso komenigarritzat jotzen dugu irakasleak irakurlearen papera hartzea ikasleen aurrean, euskarri desberdinetan irakurriz, hala nola, egunkaria, aldizkariak, liburuak... irakurritakoari buruz ikasleen aurrean erreferentzia eginez.

Eskolako liburutegia erabiltzea funtsezkoa iruditzen zaigu, bai kontsulta liburuak aztertzeko baita fikziozko liburuak ere maileguan hartu eta irakurtzeko. Administrazioak ere zer esan handia dauka baliabide hau eskoletan hobetzeko, behar diren pertsonala eta bitartekoak jarritz.

2. Irakurketa ozenki: Ikasleei ozenki irakurtzea eskatzen zaionean, beti alde aurretik prestatutako irakurketa izango da, beraiek idatzitako zerbait besteen aurrean irakurri nahi dutelako.

Beraiek idatzitakoa berrirakurtzea (ea zentzua duen, akatsak zuzentzeko...) oso gutxitan egiten dutenez, egindako lana ondoko ikaskideari irakurtzeko proposatzen dugu, modu honetan konturatzen baitira egin dituzten akatsez.

ULERMENEZKO IRAKURKETA HOBETZEKO ESTRATEGIAK

Irakurketaren ulermena hobetzeko proposatzen ditugun estrategiak hiru momentutan ezarri daitezke:

1. Irakurketa baino lehen.
2. Irakurtzen dugun bitartean.
3. Irakurri eta gero.

IRAKURKETA BAINO LEHEN

Helburua zein den jakitea.

Orokorrean irakurri baino lehen sarreratxo bat egitea komeni da, zertarako irakurri behar dugun zehazteko.

Ingurunearen adibidea argiena iruditu zaigu, arlo honetan, gaia jorratzeko behar dugun informazioa lortzeko, lehenengo, bilatu behar ditugu gaiari buruzko liburuak eta gero informazioa irakurri, ulertu, bereganatu, eta modu propio batean idatziz adierazi, informazioa hau besteei ezagutzera eman behar dute eta. Hemen irakurketaren helburua oso zehatza da, eta argi dauka bakoitzak zein den bere betebeharra.

I- TESTU MOTAK:

- ↳ **Enumeratiboa:** Zerrendak (izenak, telefonoak, agendak...)
Txartelak
Ordutegiak
Menuak
- ↳ **Informatiboa:** Egunkariak, aldizkariak
Propaganda
Deialdi txartelak (antzerkiak, txotxongiloak...)
Iragarkiak
Elkarrizketak
Gurasoentzako oharrak
Gonbidapenak
Eskutitzak (Olentzero,lagunak...)
- ↳ **Espositiboa:** Entziklopediak
Testu monografikoak
Biografiak
Deskribapenak
Bildumak (dosierrak)
- ↳ **Literarioa:** Ipuinak
Olerkiak
Asmakizunak
Antzerkia
Abestiak
Komikiak
Alegiak
Bertsoak
Onomatopeiak
Esaera zaharrak
- ↳ **Preskriptiboa:** Arauak
Sukalde errezetak
Esperimentuen pausoak

ERANSKINA



- ↳ **IRAKURKETA KANPAINETARAKO MATERIALA. JARDUERAK**
 - ERABILERA HOBETZEKO
 - BOK ELKARRI KONTU KONTARI

- ↳ **FAMILIEI EMATEKO INFORMAZIOA. (Liburutegian eskuragarri).**

- ↳ **LIBURUTEGIA ERABILTZEKO ARAUTEGIA. (Liburutegian eskuragarri).**


LIBURUTEGIAREN ERABILERA HOBETZEKO EKINTZAK

LEHEN HEZKUNTZA:


1. Liburutegiko arautegia irakurri :
 - Erabilpena arauak.
 - Mailegu zerbitzuaren arauak.
2. Liburuak sailkatzeko kodea ezagutzera eman. (S.H.U. Sailkapen Hamartar Unibertsala).
 - Txartela gelan behar denean erabili.
 - Liburutegian txartelak identifikatu.
3. Haur eta gazte literatura sailkatzeko kodea ezagut
 - Gomets urdina: Haur hezkuntza eta 1. zikloa.
 - Gomets gorria: 2. zikloa.
 - Gomets berdea: 3.zikloa.
4. Ikasle bakoitzak haur hezkuntza 3. mailatik 6. maila arte **MARKALIBURUA** izanen du txartela, txartela bezala beti mailatik mailara eramane duena.
Honen inguruan honako ekintzak proposatzen ditugu:
 - Markaliburua diseinatzea, apaintzea
irudi, marrazki, bertso.....
 - Izena idatzi eta plastifikatu behar dira.
 - Erakusketan jartzea liburuaren egunerako. (apirilaren 22, ostirala).

*OHARRA: Apirilaren 18an Juan Kruz Igerabide etorriko da eskolara.
Topaketa hau 3. mailakoekin egingen da.*

APIRILAREN 23 LIBURUAREN EGUNA



LIBURUTEGIKO ERABILERAREN HURBILPENERAKO EKINTZAK



HAUR HEZKUNTZA:

1. “BLITZ” liburutegiko saguaren aurkezpena.
Beraren bitartez liburutegiaren arauak zeintzuk diren azalduko diegu hurrei.
 2. “BLITZ” saguaren marrazketa eta margotzea.
 3. Saguak agertzen diren ipuin eta liburuekin eta hurrek egindako marrazkiekin erakusketa antolatu liburutegian.
 4. “BLITZ” pertsoniarekin joko bat antolatu:
Pista batzuk emanda aurkitzea litzateke helburua.
 5. Liburuak irizpide batzuen arabera sailkatuta daudela ohartarazteko ekintza proposamenak :
 - Liburuak sailkatzeko kode bat dagoela adierazi:
Horma-irudia erakutsi. Sailkapen Hamartar Unibertsala (S.H.U.)
Kartelak identifikatu (koloreak).
 - Haur eta gazte Literatura sailkatzeko kodea ezagutzea:
 - Gomets urdina: Haur hezkuntza eta 1. zikloa.
 - Gomets gorria: 2. zikloa.
 - Gomets berdea: 3. zikloa.
 - Haur Hezkuntza 3. mailakoek
Markaliburua diseinatzea, apaintzea irudi, marrazki, bertso..
 - Izena idatzi eta plastifikatu behar dira.
 - Erakusketan jartzea liburuaren egunerako (apirilaren 22, ostirala)
 6. Irakurtzeaz gain liburutegian beste ekintza batzuk egin daitezkeela ohartarazi:
bideo eta DVD emanaldiak pantaila handian; musika entzunaldiak, aurkezpenak...
- OHARRA: Apirilaren 18an Juan Kruz Igerabide etorriko da eskolara.
Topaketa hau 3.mailakoekin egingen da.*

IRAKURZALETASUNA BULTZATZEKO EKINTZAK



1- BIOK ELKARRI KONTU-KONTARI 05-06 IKASTURTEA

Bigarren eta hirugarren zikloko hurrek, haur hezkuntza eta lehenengo zikloko ikasleei ipuin edo istorio bat kontatu edo irakurriko diete.

Talde bakoitzak taulan agertzen den ondoko taldeari irakurri behar dio.

Nor	Norekin
6.A	H.H. 2 A
6.B	H.H. 2.B
6.C	H.H. 2:C
5.A	H.H. 3.A
5.B	H.H. 3.B
5.C	H.H. 3:C
4.A	2.A
4.B	2.B
4.C	2.C
3.A	1.A
3.B	1.B
3.C	1.C
6.A	1.D

1.-Ekintzaren deskribapena:

Irakurleen tutore bakoitzak liburutegiko liburuak aukeratuko ditu kontuan izanda entzuleen adina. Entzuleen tutoreari galdetuko dio hartutako liburuak ea egokiak diren. Aldi berean, ikasleen zerrenda eskatuko dio bikoteak osatzeko eta irakurketa eguna erabakiko dute.

Hurrei liburuak banatuko dizkie bere Kabuz irakurtzeko eta nori irakurri behar dion. esango die.Zehaztutako egunean liburutegian elkartuko dira bi gelakideak .Binaka jarri ondoren ikasle nagusiak irakurri edo kontatuko dio bere bikoteari irakurritako liburua.

2. Ekintzaren deskribapena

Goi-mailako ikasleek ipuin bat asmatu eta prestatuko dute liburu baten moduan (azala, marrazkiak, testua eta abar...).

Aurreko ekintzan bezala, bikoteka liburutegian elkartuko dira, zehaztutako egun batean, haiek sortutako ipuina irakurtzeko eta oparitzeko. Entzuleak bikoteari olerki edo beste oparitxo bat emanen dio.

Data:

Lehenengo ekintza Martxoan egingo da; bigarrena Kultur astean (Maiatzean).